



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

EUKARISTIA: EGITURA ETA OHIKUNEAK

7. GAIA

GURASOAK PARROKIAN

Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza



1. Helburu nagusia

- Eukaristia-ospakizuna ulertu.

2. Helburu bereziak

- Eukaristiako sinbolo eta ohikune nagusiak ezagutu eta ulertu.
- Jesusek gonbidatzen gaituen elkarte ospakizun den Eukaristia ospatzeko prestatu.



Ideia nagusiak

- Eukaristiaren atalak ezagutzearen garrantzia.
- Eukaristiak, elkarte ospakizunak, kristau bezala bizitzeko duen garrantziaz jabetu.



Ezinbesteko lagungarriak

- Erantsitako agirien kopiak

Garrantzitsua da denbora hartzea saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldez aurretik, behar izango dugun guztia prestatzeko.

A. SAIOA GURASOENTZAT PARROKIAN



Saiorako gida

Laguntzailearentzat

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

1. unea: Agurra eta aurkezpena. 1. Urratsa.
2. unea: Gaiaren garapena. 2-5 urratsak
3. unea: Bilketa eta laburpena. 6. urratsa
4. unea: Otoitza eta barneratzea. 7. urratsa
5. unea: Familian bizitzeko. 8. urratsa



1. unea. Agurra eta aurkezpena.

Laguntzaileak, bildutakoak agurtu ondoren, aurreko saioan landutako kontu batuk gogora ekarriko ditu. Delako saio horretan Eukaristiaren zentzua izan bazen langaia, oraingoan Eukaristiaren ohikune eta atalak aztertuko ditugu.



2. unea. Gaiaren garapena.



1. urratsa: "Eukaristiaren ohikune eta atalak" (dinamika)

Koloretako kartulina-zerrendetan Eukaristiaren ohikune edo atalak idatzi. Kolore berdineko beste zerrenda batzuetan, ohikune edo atal bakoitzaren inguruan zerbait idatzi.

Ohikune eta atalak eta azalpena, ondoren jarriko duguna izan daiteke. Laburtu ere egin daiteke, taldearen eta bere jakin-min eta heziketaren arabera.



2. urratsa: Hiruzpalau lagunez osaturiko taldeak egin. Taldeei Eukaristiaren ohikune edo atalak jasotzen dituzten kartulina-zerrenda joko bana eman. Talde bakoitzean, ordenan jarriko dituzte. Edo beren ustez jarraitu beharko luketen ordenan. Egitekoa amaitu ondoren, elkarriketan jardun talde handian. Eta gaur egun ezarritako ordenan ipini.

Oharrak:

- 1) Taldean ez ezik, bakarka ere egin daiteke.
- 2) Osaturiko taldeak edo taldekideak adina kartulina-zerrenda joko izango ditugu prest.



3. urratsa: Eukaristiaren ohikune eta atalen zerrenda-jokoak banatu ondoren, kolore bakarreko beste zerrenda-joko bana emango zaie. Hauetan, ohikune eta atal bakoitzaren inguruko zerbait azaltzen da. Ohikune edo atal bakoitzaren zerrenda dagokion azalpenaren zerrendarekin lotzea da helburua. Lehen ariketa apurtu edo desordenatu badute, ohikune eta atalak ordenan jartzen ere saiatuko dira.

EUKARISTIAREN OHIKUNE ETA ATALAK

HARRERA: Eukaristia ospatzeko, ezinbestekoa da abegi ona egitea, gustura, etxean bezala sentitzea.

AGURRA: Guztiei ongi etorria adierazi Jainkoaren izenean. Apaizak egingo du.

BARKAMENA: Bihotza garbitzeko, damutzeko, “bekatari naiz” errezatzeko unea da.

JAINKOAREN HITZA: Eukaristiaren atal honetan, Bibliako bizpahiru txatal irakurtzen ditugu, hitz egiten ari zaigun Jainkoari entzuteko.

EBANJELIOA: Jainkoaren Hitzari eskainitako hirugarren irakurgai honek Jesusen hitz eta egiteak agertzen dizkigu. “Berri Ona” esan nahi du.

HOMILIA: Jainkoaren Hitzari buruzko azalpenak. Homilia edo sermoi deitzen da.

KREDOA: Otoitz honen bidez, kristauok geure fedea aitortzen dugu. Kristau fedearen laburpena da. Egokia da buruz jakitea.

JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA: Gure eta mundu osoaren premien alde eskatzen dugu. Egokia da laiko batek edo bi egitea eta ez apaizak.

OFERTORIOA: Ogi eta ardoaren aurkezpena aldarean. Batzuetan, beste hainbat opari ere aurkezten da.

EUKARISTIA-OTOITZA: Otoitz luzea, Jainkoari esker ona adierazteko; Jesusek azken afarian egin zuena gogoratzen dugu.

SANTUA: Otoitz hau batzar osoak egien du ozen; lehen hitza hiru aldiz errepikatzen dugu. Askotan, abestu egiten da.

KONTSAKRAZIOA: Ogia eta ardoa, Jesusen gorputz eta odol bihurtzen dira.

AITAGUREA: Jesusek irakatsi zigun otoitza errezatuz, geure burua jaunartzeko prestatzen dugu.

BAKE-BESARKADA: Adiskide izanik, bakean bizi garela agertzen dugu keinu honekin; Aitagurea errezatu ondoren egiten da.

JAUNARTZEA: Jesus “jateko”, janari bezala hartzeko unea da. “Komulgatu” ere esaten zaio.

BEDEINKAPENA: Jaunartzearen ostean, mezari amaiera eman aurretik, apaizak gurutzearen seinalea egin eta zera dio: Jainkoak maite gaituela, gutaz gauza onak esaten dituela eta bakean bizitzera bidaltzen gaituela.

AGURRA: “Zoazte Jaunaren bakean!”, esan eta guk “eskerrak Jainkoari” erantzuteaz batera amaitzen da meza.



4. urratsa: Taldeka jardunbidea burutu eta “ondo dagoen ala ez ikusteko” batera jarri aurretik, “Eukaristia ulertzeko eta ospatzeko” idazkia banatuko diegu bakarka irakur dezaten. (ERANSKINA)

Bateratze-lana. Horren inguruan elkarriketan jardun eta, beharbada, laguntzaileak argitu beharreko kontuak nabarmenduko ditu.



5. urratsa: Atal honi amaiera emateko, “mezaren atalak” izenburua duen bideoa ikusiko dugu edo “Mezaren ohikune eta atalak” power pointa.



Ritos y partes de la misa

**Ikusteko,
klik egiteko irudian**



Las partes de la misa



3. unea. Bilketa eta laburpena



6. urratsa. Pentsatzeko...

Amaitzeko, gogoeta egin eta batera jarri:

- Zer “ikasi” dugu?
- Zerbait esanguratsu gertatu zaigu? Zenbat berri?
- Ezagutzen genituen Eukaristiaren atalak eta egitura?



4. unea. Otoitza eta barneratzea

7. urratsa: Topaketa amaitzeko, taldean otoitz egiten amaitu dugu. "La misa es una fiesta muy alegre" entzun eta abesten dugu (3. ERANSKINA)

**Entzuteko,
klik egiteko irudian**



Jauna irakats iezaguzu Eukaristia
gure anai eta arrebeekin batera bizitzen eta ospatzen;
Eukaristian bihotz garbiz parte hartzen
eta zure hitza belarri zoliz entzuten.

Hona hemen gure dohainak,
onartu gure gorespina eta protesta,
gure irrikak eta gure otoitzak,
gure egiteak eta gure esanak.

Dei gaitzazu zure afari eta jai-otordura;
seme-alaba eta anai-arreba izaten
eta Zuk bezala, banatzen ikas dezagun.
Bedeinkatu eta bidal gaitzazu zure erreinua eraikitza.
Amen

 5. unea. Familian bizitzeko

8. urratsa. Familia da, zuek zarete, seme-alabak abegi eta maitasuna sentitu duen lehen elkarte; zuen eskutik eman ditu lehen urratsak bere erlijio esnatzean. Jesusengan sinesten dugunok, ordea, elkarte zabalagoan bizi gara, Jesusen jarraitzaileen familian, Elizan. Bertan, oraingoan ere zuen eskutik, zuen seme-alabak fedean hazi eta fedea garatu egin behar du elkarteko gainerako fededunekin batera.

- Familiako gertaerak, une garrantzitsuak ospatzean, lagun iezaiezue zer eta zergatik ospatzen duzuen jakiten.
- Igandetan, beraiekin Eukaristia ospatzera joan. Parrokian familia meza egonez gero, seme-alabarekin parte hartu.
- Lagun iezaiezue mezaren atalak eta bakoitzaren zentzua ezagutzen eta jarraitzen.
- Biblia izan etxean: erakutsi, zer den esan, leku nabarmenean ipini egun edo aste hauetan.
- Umeentzako otoitz-liburua eskuratu, Jainkoarekiko hartu-emanen lehen urratsak eman ditzaten. Familia Eukaristian ikasitako abestiren bat gogoratu eta abestu.
- Igandea jai-giroan bizi familian. Eukaristiari buruz hitz egin: nola prestatzen garen ospatzeko.

I. Eranskina: EUKARISTIAKO URRATSAK



Bineta bakoitzari izenburu edo izena ipini.
Bakarka edo bizpahiru hurrez osatutako taldeetan.

"EGIZUE HAU NIRE OROIGARRI" (LK 22,19)

II. Eranskina: Eukaristia ulertzeko eta ospatzeko: egitura eta errituak

Eukaristiak, giza ospakizun orok bezala, badu erritmo bat, urrats batzuk, ibilbide bat. Munduko edozein lekutako kristau komunitate guztietan, gutxi gorabehera, modu berean ospatzen da.

Eukaristiaren ospakizunean sei atal bereizten dira: **1) Sarrerako erritua; 2) Hitzaren liturgia; 3) Eskaintzak edo eskaintzak aurkeztea; 4) Eukaristia-otoitza; 5) Jaunartzea; 6) Agur-erritua.**

1.- Sarrerako ohikunea. Jaia ospatuko dugunez, ezinbestekoa da prestatzea. Lekua apaindu egin behar dugu: loreak, mahaia, maindirea, kandelak. Guztiei abegi egin eta ongi etorria adieraziko zaie: inor ez dadila bakarrik sentitu, inork ez dezala bere burua baztertuta sumatu... Baina, batez ere, ezinbestekoa da bihotza prestatzea: horregatik, geure burua bekatari aitortuko dugu anai-arreben eta Jainkoaren aurrean, honen barkamena onartu eta "Aintza" abestuz goratu egingo dugu. Batzar-buruak, lehen otoitza egingo du batzarraren sentipenak jasoz. Sarrerako ohikuneak, beraz, bost atal ditu: Prozesio-abestia, apaizaren agurra, damu otoitza, gorespina (Aintza) eta otoitza, beti denak egiten ez badira ere, liturgia aldiaren edo ospakizunaren garrantziaren arabera, prozesio-abestia eta aintza kendu egiten dira-eta.

2.- Hitzaren liturgia. Jainkoaren hitza entzun eta zer dioskun eta zertara bultzatzen gaituen konturatu behar dugu; gure bizitzak sakon alda ditzake. Astegunetan, bi irakurgai irakurtzen dira eta igandetan, hiru. Hitzaren liturgia burutzeko, Berri Ona irakurtzen da. Jainkoaren Hitza entzutea, Hitz horrek gure bizitzara eta elkartera dakarren argia aurkitzea eta onartzea da.

"Erantzun-salmoa" ere atal garrantzitsua da Hitzaren liturgian. Horren bitartez, batzarrak Jainkoaren hitza bere egiten du eta erantzun egiten dio.

Irakurgaien ostean, hauek egiten dira: homilia, elkartean Jainkoaren hitza azaltzeko eta eguneratzeko; kredo, Jainkoaren hitza entzun ondoren gure fedea aitortzeko; Jainkoaren herriaren otoitza, elkarrekin Jainkoari bere premiak aurkezteko. Egia esan, Jainkoak badu premia horien berri, gu geu premia horiez jabetzeko egiten dugun otoitza da.

3.- Oparien aurkezpena. "Lurraren eta gizonaren lanaren fruitu" diren ogia eta ardoa eskaintzen ditugu, baina baita beste hainbat gauza, sinbolo eta ikur, gatazkak, borrokak, itxaropenak, poztasunak, konpromisoak, maitasunak, egitasmoak..., gogora ekartzeko. Une honetan egiten den diru-bilketa, aukera ona da, daukagunetik behartsuenei banatzeko. Baina bakarrik soberan duguna emanaz gero, zera erakutsiko dugu: ez dugula ulertu ez elkartasuna zer den ezta Eukaristia ospatzea zer den.

4.- Eukaristia-otoitza. Eukaristia-otoitza, Aitari aurkezten zaion esker oneko eta gorespenezko otoitza da. "Gora bihotzak" esaten da hasieran eta abestuz (prefazioa eta santu) kreazio osoarekin bat egiteko dei egiten zaigu.

Ondoren, Espiritu Santuaren bitartez, Jesus eta bere buruaren erabateko eskaintza dakarzkigu gogora, agindu ziguna berriro biziz eta eginez: "hau, nire gorputza da, emango dena... Hau, nire odola da, isuriko dena...". Eta batzarrak Jesukristorenganako fedea aitortzen du: "Hil eta piztu zarela, Jauna: Zu berriz etorri arte, hau dugu, hau, berri ona!".

Eukaristia-otoitzari amaiera emateko, Jainkoa goستن da. Ogi eta ardoa altxatuta eta batzarrari erakutsiz egiten den 'topa' da: "Honen bitartez, honekin eta honengan..."

5.- Jaunartzea. Jaunaren afariaren zeinu nagusia da, Eukaristiaren une gorena. Jaunartzearen aurretik geure burua prestatzeko, Jesusek berak irakatsi zigun senidetasunaren otoitza, Aitagurea, errezatzen dugu. Bakea eta batasuna eskatzen ditugu munduan eta Elizan eta bakea ematen diogu elkarri.

Jaunartzearen aurretik, batzar-buruak ogia (ostia), Jesukristoren gorputza "zatitu" egiten du. Keinu esanguratsua da, bere burua zatitu eta besteei ematen dienak baizik ez du-eta elkartasuna sortzen.

Ez da zentzuzkoa gonbidatuta izan eta otorduan ez parte hartzea. Gure lekutik altxatzea, ogi beretik jatera eta ardo beretik edatera hurbiltzea jardunbide askatzailea da eta Jesusen bizimodua geure egin eta bere maitasunaren isla izatera garamatza.

6.-Agurreko ohikunea. Atal hauek ditu: esker ona, jaunartu ostean batzarrak dituen sentimenduak bilduz; batzar-buruaren bedeinkapena Jainkoaren izenean batzar osoari eta bidalketa eta ospatutakoa bizitzara eramateko deia. Hori esan nahi du, hain zuzen ere, Eukaristia izendatzeko erabiltzen den "meza" latindar hitzak.